

Eskubaloiko Kirol-teknikari ikastaro berezia.

(erdi mailako hasieraki zikloa)

2020/2021 ikasturtea



Ikasturte hau **araubide bereziko kirol-irakaskuntzen barruan** dago. Irakaskuntza horiek hezkuntza-sisteman sartuta daude eta, beraz, balio akademikoa dute. Bi mailatan egituratzen dira: erdi-maila eta goi-maila. Eskubaloiko kirol-teknikariaren titulua erdi-mailakoa da, eta bi ikastarok osatzen dute: hasierako zikloa eta amaierako zikloa.

Erdi-mailako hasierako zikloko ikasturte hau bere **modalitate berezian** garatuko da. Modalitate berezia kirolari talde edo taldeekin entrenatzaile gisa esperientzia izan baina inolako titulaziorik ez duten pertsonen zuzenduta dago, edota titulazio arautu gabea dutenei (hezkuntza-sistematik kanpo).

Modalitate berezi horrek aukera ematen du jardunean dauden entrenatzaile horien esperientzia eta aldez aurreko prestakuntza ez-arautua baloratzeko, eta, horrela, kurrikulum osagarri bat eginez **Eskubaloiko Kirol Teknikariaren Hasierako Zikloaren Ziurtagiria** lor dezakete, eta, beraz, hezkuntza-sistemak onartutako titulazioen eremuan sartu.

Modalitate bereziko ikastaro hau eskiantzeko Nafarroako Kirol Eskolak **Nafarroako Eskubaloiko Federazioaren** laguntza du.

Sartzeko baldintzak

Zein baldintza bete behar dituzte modalitate bereziko ikastaroan interesa dutenek?

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua (DBH) edo baliokidea.
- Prestakuntza praktikoko moduluaren salbuespen osoa frogatzea (*)
- Berariazko sarbide-proba gainditzea (**).
- Lehen mailako federazio titulazio edo formakuntza bat izatea (edo baliokidea); edota azken 10 urteetan 5 denboralditan zehar (osorik) jardun izana entrenatzaile bezala, eta frogatu ahal izatea Acreditar una formación-titulación federativa de nivel 1 (o equivalente) o una experiencia laboral-deportiva equivalente a 5 temporadas completas en las 10 temporadas anteriores.
- Azken 5 urteetan zehar 3 urte edo gehiagotan Nafarroako Eskubaloï Federazioaren entrenatzaile edo monitore lizentzia izatea

(*) 300 ordu baino gehiagoko esperientzia ikastaroa amaitutako aurreko bi urteetan, beti ere hasierako zikloko gaitasun orokorrekin eta prestakuntza praktikoko moduluko ikaskuntzaren emaitzekin lotuta.

(**) Proba honetarako deialdia Hezkuntza Departamentuak egiten du, martxoaren 5eko 361/2004 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritako jarraibideen arabera (361/2004 Errege Dekretua, Eskubaloïko teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak ezarri, irakaskuntza komunak onartu eta irakaskuntza horietara sartzeko probak arautzen dituen).

Ikastaroko aurreinskripzioa:

Aurreinskripzio eskabideak Nafarroako Kirol Eskola-ko idazkaritzan aurkeztu beharko dira (Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa; Zangoza Kalea, 34 -Larrabide estadioan. 31005 Iruña) edo formacion@fundacionmiguelindurain.com helbide elektronikoan, urriaren 13tik 20ra, Miguel Indurain Fundazioa-ren web-orri honetan eskura daitekeen inprimaki-ereduaren arabera: www.fundacionmiguelindurain.com (formakuntza sailean, eskubaloï formakuntza berezi izenarekin)

Aurrez izena emateko fitxarekin batera, 50 € ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu behar da, hurrengo kontuan:

Titularra: Fundación Miguel Indurain
Kontu zenbakia: ES 33 2100 3693 23 2210035448 (Caixabank)
Kontzeptua: Eskubaloï ikastaro bereziko aurreinskripzioa

Ikaslea onartutakoan, kopuru hori matrikularen zenbatekotik kenduko zaio.

Sartzeko berariazko probak ez gainditzeagatik edo plazak mugatzeagatik onartzen ez diren izangaiek aurreinskripzioaren zenbatekoa itzultzeko eskubidea izango dute. Aurrez izena emateko kuota ordaindu dutenek eta erabaki pertsonalagatik matrikulatzen ez diren izangaiei ez zaie itzuliko, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Behar bezala betetako eskabide-inprimakiarekin batera, NAN / AIZ / Pasaporte-aren fotokopia eta aurreinskripzioaren ordainagiria entregatu beharko da.

El centro analizará la información presentada por los candidatos y elaborará la lista de relación en función de los criterios de baremación. Una vez finalizado este proceso se enviará a los interesados y se publicará en la secretaría del centro la lista de alumnos inscritos por orden de preferencia.

Zentroak hautagaiek aurkeztutako informazioa aztertuko du eta onartze-zerrenda egingo du, baremazio-irizpideen arabera. Prozesu hori amaitutakoan, izangaiei bidaliko zaie lehentasun-zerrenda, eta izena eman duten ikasleen zerrenda KAIMZ-eko idazkaritzan argitaratuko da, lehentasun-hurrenkeraren arabera.

Izena emandako izangaien zerrenda egiteko irizpideak:

- Lehentasuna izango dute federazioko prestakuntza edota federazioko titulazioa aurkezten dutenek, halakorik ez dutenen aldean.
- Aurreko irizpidea aplikatuz lehentasun-zerrendaren ordena lan- eta kirol-arloko esperientzia handiagoa edo txikiagoa aurkezten dutenen arabera izango da.

Berriazko sarrera-probak

Sartzeko baldintza orokorrak betetzeaz gain, izangaiek sarbide-proba espezifikoak egin beharko dituzte. Proba horiek **Hezkuntza Departamentuak deitzen ditu**. Proba horiek gainditzea ezinbestekoa da ikastaroan matrikulatu ahal izateko.

Hezkuntza Departamentuak sarbide-proba espezifikoen deialdia egin ondoren, izangaiei jakinaraziko zaie, bertan izena eman dezaten. Jakinarazpen horretan, batzarraren eguna eta ordua ez ezik, izena emateko prozedura eta aurkeztu beharreko dokumentazioa ere adieraziko dira.

Matrikulatzeko prozedura

Gehieneko plaza-kopurua: 30

Hezkuntza Departamentuak onartuen behin betiko zerrenda argitaratzen duenean, astebeteko epea emango da matrikula formalizatzeko. Zentroak egindako lehentasun-zerrendako lehenengo 30 postuetan izena emanda daudenek izango dute ikastaroan matrikulatzeko eskubidea.

Matrikula formalizatzen duten ikasleek honako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:

- DBH-ko titulua, baliokidea edo maila goragoko titulu baten fotokopia
- Praktika-modulutik erabat salbuetsita dagoela egiaztatzen duen agiria.

- Nafarroako Eskubaloï Federazioan federatua dela egiaztatzen duen agiria, sartzeko eskatzen diren baldintzen arabera.
- Federazio-tituluaren fotokopia (hala badagokio)
- Lan- edo kirol-esperientziaren ziurtagiria

NaKirolE-ren ordezkarietatik (Miguel Induráin Fundazioa) kuota ordaintzeko jarraibideak emango dira.

Ikastaroko matrikulazioa 150 €-koa da.

Oharra: aurreikusitako aurrez aurreko klase guztiak egin behar dituen ikasle batentzako zenbatekoa da. Irakastordu gutxiago dituzten ikasleei dagokien murrizketa aplikatuko zaie.

Formakuntza plana

Irakasle-taldeak, ikasle bakoitzaren espedienteaz aztertu ondoren, banakako prestakuntza-plana ezarriko du maila horretarako eskatzen den prestakuntza osatzeko.

Garatu beharreko prestakuntzak nahitaez bertaratu beharreko aurrez aurreko saioak eta langile autonomoen lan-saioak ekarriko ditu. Lan hori guztia tutoretza presentzialarekin eta urrutiko tutoretzarekin konbinatuko da.

Ikastaroaren garapena

Ikastaroa azaroaren 7tik abenduaren 22ra egingo da (8 aste).

Ikastaroa aurrez aurrekoa izango da. (18 ordu bloke komunean, 16 ordu espezifikotan eta 4 osagarrian). Saioren helburua federazioen prestakuntzan landu ez diren edukiak osatzea da.

Aurrez aurreko irakastorduak arratsaldean edo asteburuko saioetan emango dira.

Bloke espezifikokoaren egutegi presentziala (aurrez aurreko ikastorduak)

Data	Ordutegia	Irakastorduak (16 ordu)
Azaroak 7 (I)	8:00 - 14:00	6 ordu
Azaroak 14 (I)	9:00 - 14:00	5 ordu
Azaroak 21 (I)	9:00 - 14:00	5 ordu
Azaroak 28	10:00 - 14:00	Azterketa

Bloke komuneko egutegi presentziala (aurrez aurreko ikastorduak)

Data	Ordutegia	Ikastorduak (18 ordu)
Abenduak 1 (Az)	16:00 - 21:00	5 ordu
Abenduak 10 (Ol)	16:00 - 20:00	4 ordu
Abenduak 11 (L)	10:00 - 14:00	4 ordu
Abenduak 15 (Al)	16:00 - 21:00	5 ordu
Abenduak 22 (Az)	16:00 - 18:00	Azterketa

- Ohiko deialdiko aurrez aurreko azterketak KAIMZ-en egingo dira **abenduaren 22an** 16:00-etan
- Ez-ohiko deialdiko aurrez aurreko azterketa **urtarrilaren 26an** egingo da KAIMZ-en, 16:00-etan

Bloke osagarriko egutegi presentziala (aurrez aurreko ikastorduak)

Data	Ordutegia	Ikastorduak (4 ordu)
Abenduak 11 (L)	16:00 - 20:00	4 ordu

Saio bakoitzera joan behar izatea ikasleak egin behar duen banakako kurrikulumaren arabera izango da. Nahitaezkoa da programatutako aurrez aurreko saioen % 80ra, gutxienez, bertaratzea.

Zati ez presentziala

Aurrez aurreko zatia tutoretzapeko lan edo ariketa praktikoekin osatuko da. Horiek **azaroaren 28a** baino lehen entregatu beharko dira bloke espezifikotan, eta **abenduaren 22a** baino lehen bloke komunean.

Erreferentziazko legedia

- 1363/2007 Errege Dekretua, urriaren 24koa, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena.
- 361/2004 Errege Dekretua, martxoaren 5koa, eskubaloiko kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren tituluak ezarri, horiei dagozkien irakaskuntza komunak onartu eta irakaskuntza horietara

sartzeko probak arautzen dituenak.

- ECI/494/2005 Agindua, otsailaren 23koa, eskubaloiko kirol-technikariaren eta goi-mailako kirol-technikariaren tituluei dagozkien curriculumak eta sartzeko probak eta baldintzak ezartzen dituenak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren zuzeneko kudeaketako lurralde-eremurako.
- 248/2011 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan araubide bereziko kirol-irakaskuntzen antolamendua eta garapena arautzen dituenak.
- 90/2018 ebazpena, otsailaren 23koa, Unibertsitate eta Hezkuntza Baliabideetako zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Nafarroako Kirol Eskolari baimena ematen baitzaio saskibaloiko kirol-irakaskuntzak, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen bloke komuna eta urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean aipatutako kirol-prestakuntzako jardueren bloke komuna emateko.
- 356/2021 ebazpena, abuztuaren 27koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiarena, Nafarroako Kirol Eskola autotizatzen duena eskubaloiko kirol-irakaskuntzak emateko.

Informazioa / matrikulazioa:

Nafarroako Kirol Eskola (NakirolE)

Centro de Estudios, Investigación y Medicina del Deporte (Larrabide Estadioan)

Zangoza kalea, 34

31005 IRUÑA

Telf: 848 431585

E-maila: formacion@fundacionmiguelindurain.com